


Goierri tarra

277. zenbakia 2005eko martxoak 18



TURISMOA BULTZATZEKO EKIMENAK



digitaletik
argazkira
FOTOETXE



zuzenketak
argazkiz argazki

automatikoan
autozerbitzua

internetetik bidaliz
www.fotoetxe.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.*

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
943 88 22 51
Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

BERTSOTAN

Elurra



Joxe Munduate

Andonik abixoa
eman zigun aurrez
menditik kaleraino
zetorrela errez
etxetik irtetzeko
hotzaren beldurrez
aurten nor ez ote da
asetu elurrez.

Uste ez dela sarri
pausoa arindu
zutik joan nahi baina
lurrean berdindu
elur zale bazara
ez zaitea mindu
datorren negura arte
nahikoa egin du.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 607 530 424

647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga

9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

AURKIBIDEA

6. Errezeta: Legatza sagardotan
Aholkua: Argazki kamara digitalak

8. Kate motzean: Izarra Urdalleta

9. Erreportajea: Ordizia: Europako
gazten hiriburu

14. Erreportajea: D'elikatuz

18. Elkarrizketa: Oianguko proiektua
mahai gainean


22. Goierritarrak Munduan:
Nikomedes Iguainen heriotza

24. Aste santua: Jesus giltzapetuaren
zaintza

26. Esperientziaren leihoa:
Ausartak antzerki taldea

32. Debaldeko iragarkiak

34. Argazki zaharra



Goierritarra Goierriz kanpo
jasotzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 12 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 24 euro

Europaz kanpo: urtean 36 euro

Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

GOIERRIKO UDALAK

Altza, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal,
Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutilloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegui,
Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain



Gipuzkoako Foru Aldundia

Iraunkortasuna



Gehienok azkarregi egiten dugu aurrera gure atzean uzten dugunaz jabetu gabe, hondaturiko ingurua, pertsonen arteko ezberdintasunaren ondorioz zatituriko gizarte, azpigarapena,...

Etxean, irabazten duguna baino gehiago gastatzen badugu, badakigu epe luze-
ra ezingo diogula egoera horri eutsi. Horixe bera gertatuko da gure planetan, naturak berrezar ditzakeen baliabideak baino gehiago kontsumitzen baditugu. Azken batean, iraunkortasuna gure belaunaldiaren eta etorkizuneko bizi-kalitatea ziurtatzeko baldintza bat da.

Inguru osasuntsua lortzearen pentsatzea eta jardutea da Garapen Iraunkorra.

Tokiko Agenda 21

Goierrin garapen iraunkorrean aurrera egiteko aukeratu den tresna da Tokiko Agenda 21. Udaletxea kudeatu edo gestionatzeko eta herritarren bizi kalitatea hobetzea du helburu.

Bi printzipio nagusi ditu: alde batetik, edozein plan-gintza egiterakoan garapen ekonomikoa, garapen soziala eta ingurumenaren babesa uztartu beharra, eta bestetik, iraunkortasun globala tokiko iraunkortasunaren bidez lortzea.

Gehienetan, prozesua Aalborg-ko Gutuna sinatzean hasten da. Goierriko udal gehienek 2004an sinatu zuten. Horrela, iraunkortasunaren alde lan egiteko konpromezua azaldu dute.

Funtsean, hiru pauso bereizten dira Agenda 21 prozesuan:

1. Ingurumen, Gizarte eta Ekonomia arloak aztertzen dituen diagnosi bat egiten da, herriaren gaur egungo egoera zein den ikusteko. Diagnosi honek hobetu beharreko hainbat gai agerian jarriko ditu.
2. Helburuak finkatuko dira.
3. Finkaturiko helburuak betetzeko eman beharreko pauso edo programak garatuko dira, alegia, ekintza plan bat zehaz-

tuko da.

Amaierarik ez daukan prozesua behar luke izan. Adostutako ekintzak burutu ahala, helburuak betetzen diren egiaztatu beharko da, eta jarraipena egiten den bitartean beste ekintza berriak planifikatzen dira.

Goierriko 18 udalerrieta-ko diagnostikoen zirriborroak eginak daude, baina orain denon laguntza behar dugu.

Herritarren partehartzea

Guzti hau egiteko ezinbestekoa da herriaren iritzia aintzat hartzea; bai diagnosi egiterakoan, bai burutu beharreko ekintzak aukeratzekoan ere. Herritarrok erabakiko dugu etorkizun-
an nolako herria nahi dugun. Beraz herritar guztien sormena, ikuspuntuak eta ezagutza guztiz beharrezkoak dira horrelako prozesu bat martxan jartzerakoan. Honegatik Goierriko herrietan martxan diren eta aurki hasiko diren foroetan parte har dezazun gonbita luzatzen dizugu.

Autoestopista Galaktikoa

Atrebentzi handiarekin "La guía del Autoestopista Galáctico" liburuaren hasera kontatzen eta laburtzen saiatuko gara. "Herri baten kanpokaldean agertzen den etxe baten deskribapenarekin hasten da. Arthur Dent-entzat ezik, bertan bizi bait da bera, balio gehiegi ez duen etxea. Goiz batean bere etxe aurrean garabi edo grua bat aurkitzen du, sobrare, udalak etxea behe-
ra bota nahi omen du errepide bat eraikitzeko. Zurrumurruak entzunak omen zeuzkan, baina, zergaitik bota nahiko ote dute ba bere etxea? Arthur orduan protestaka hasten da. Udaletxe-ko langile batek planoak bederatzi hilabetez ikusgai egon direla eta herritarrek beren kexak eta iradokizunak egiteko aukera izan dutela azaltzen dio.



Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO



kutxa
gizarte ekintza

Bapatean ikaragarritzko espaziontziek zeru guztia estaltzen dute. Lurtar guztiei zuzendutako mezua entzuten da orduan Irrati, telebista... guztietan. Prostetnic Vogon Jelt, Hiperespazio Galaktikoko Plangintzako Juntakoak, Galaxiako Lurralde Urrunetako Garapen Planaren barruan gure planeta suntsitua izango dela azaltzen dute ibilbide hiper espazial zuzen baten erai-kuntzarako. Planoak eta lurra deusezteko agindua Alfa Centauroko Tokiko Plangintza Departamentuan egon dira ikusgai, beraz ezin da harridura aurpegirik jarri, eta kexa formalak azaltzeko astia egon da. Alfa Centauro 50 urteko distantziara aurkitzen bait da bakarrik."

Goiko idatzian agertzen den moduan gure bizitzan eragin zuzena duten erabaki askotan ez dugu parte hartzen. Lau urtez behin



Altzagako 1. partebartze foroa.

hauteskundeak izaten dira gure herrietan. Bertan, aurkezten direnen artean gure udaletxeetako ordezkariak zein izatea nahi dugun bozkatzen dugu. Gero, herri askotan, udal batzorde edo komisiotan parte hartzeko aukera ere izaten dugu, irekiak direlako, baina oso jende gutxik parte hartzen

du. Askok eta askok ez dakigu gainera udalaren funtzionamendua zein den ere.

Nolako herria nahi duzu etorkizunera begira?

Gehiago haztea nahi al duzu? Zer aldatuko zenuke zure herrian? Etxebizitza gehiago behar al dira? Gure inguruko paisaia horrela

mantentzea nahi al duzu? Herriko errepide hori konpondu nahi al duzu? Zerbitzu gehiago behar al dira zure herrian? Interes natural-leko zonalde hura babestu egin behar al da?...

2003ko Azaroa geroztik, Goierriko 18 udalerriak Agenda 21 prozesuan murgilduta daudenez, orain herri gehienetan irekiak izango diren foroetan parte hartzeko aukera dugu eta gure herria nolakoa izatea nahi dugun esan dezakegu.

Martxan diren foroak eta hasiko direnak kontsultibok dira gehienak. Informazioaren elkar truke bat ematen da horrelako batzarretan eta aberasgarria izaten da denentzat: egiten ez diren hainbat gauzen zergaitia uler dezakegu, egin beharra daudenak baina udalak ikusten ez dituenak mahai gainean jar ditzakegu, egiten ari diren proiektuen berri izan dezakegu...

IÑAKI ARIN Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N



BAINUKO OSAGAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA

"Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a BEASAIN
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48



Martin Gurrutxaga
Egoki jatetxea
Beasain

Osagaiak

(4 lagunentzat):

- 250 gr.ko 4 legatz solo-mo
- 8 almeja
- 8 ganba
- 2 baratxuri ale, ondo txikituta
- 50 gr. gurin
- 10 goilarakada oliba olio
- 4 zainzuri
- pote erdi bat ilar fin
- 2 gorringo, gordin
- baso ertain bat sagardo
- zainzuri salda
- perrexil txikitua

Sagardoa, zainzuri salda eta gurina bateratu, eta irakiten eduki, murriztu arte. Sutatik kendu.

Beste ontzi batean, ganbak eta almejakin salteatu, almejakin ireki arte.

Tartera edo lurrezko kazola batean, olio jarri eta baratxuriak jarri gorritzen. Legatza gehitu, aurrez gatza botata eta irinetan pasatuta. Ez utzi mugitzen hiru minututan. Ondoren buelta

eman eta beste hiru minututan eduki.

Jarraian, zainzuriak, ilarak, ganbak eta almejakin gehitu eta azkenik, gurin eta zainzuri saldaren nahasketan bota.

Ontzia mugitzen jarraitu, 10-12 minutuan. Bi arrautza gorringoak puskatu sardeska batekin eta legatzaren gainera mota. Perrexila bota. Beroan zerbitzatzen da.

Argazki kamara digitalak

Argazkigintza digitala, analogikoa, karretearekin edo tarjetatxoarekin, argazkia beti argazki.

Argazkigintza asmatu zenetik ehun urtetik gora pasa dira eta esan daiteke gaurko eguneko iraultza digitala, fotografia eta irudiarentzat aberasgarri izan dela.

Alde batetik, betiko argazkigintzaren negatiboak eta diapositibak lortu duten kalitate izugarria ezin dezaieku ahaztu. Gainera, eskaner baten bitartez edozein karrete edo argazki digital bihurtu dezakegu cd edo dvd batean gordetzeko aukerarekin.

Bestalde, kamara digitalekin egiten ditugun argazkiak, bertan ikusteko aukera zoragarria ematen digu. Baita ere ordenadorez aldaketaren bat egin edo interneten bidez argazkiak erakutsi.

Kamara digital bat aukeratzean, zertan oinarritu behar dugu? Digitala edo analogikoa izan, ka-

mara konpakta bat erositerakoan, diseinu eta itxurak garrantzia izango du, jakina, baina objetiboaren kalitate eta argitasun maila kontuan izatea oso garrantzitsua da.

Zenbait mega ditu? Argazkiaren neurriarentzat gehienbat, kontuan izan beharreko datua da hiru, lau, bost, zazpi megadun kamara aukera handia da.

Eta zoom-a? Orokorrean, gehienak 3X-koak dira baina 8X eta 10X-ekoak ere badaude. Hauek hantxeagoak dira, zoom optikoak bere tokia nahi eta nahiez behar duelako.

Marka aldetik zer? Munduan zehar, salmentaren arabera, zerrenda ordena honela dago: Olympus, Sony eta Canon lehenengo, eta ondoren, Nikon, Fuji, Casio, Pentax, eta abar. Arlo honetan marka ezberdinen bermeari buruzko iritzia entzutea beharrezkoa da.

Bateria ala piladunak?

Kamara digitalen autonomiak ez dauka zer ikusirik, betiko kamara baten pila iraupenarekin. Digitala, gutxiago irauten dute eta oraindik produktu berria denez, hobetzen ari dira, baina orain arte ezagutzen dugunaren arabera, litiozko bateriak iraupen handiagoa dute, nahiz eta garestiagoak izan. Piladun kamaretan, birkargatzeko modukoak erabiltzea da hoberena. Makina hauen alde esan daitekeena da, egoera larri batean pila normalak nonahi eros daitezkeela.

Argazkiak errebelatzea non? Kamara digitalean karretedunetan bezala, dendara joan eta betiko kalitatezko errebelatua eskatu. Zuzenketak argazkiz argazki eginaz edo automatikoan, autozerbitzu modura, norberak eginez. Dendaren web orritik ere errebelatzeko eska daiteke. Zerbitzu hauek bertan eta egunean ematen dira.

AHOLKUA



Joxe Mari Telleria
argazkilaria
www.fotoetxe.com

Argazki lehiaketa

Landarlan elkarteak, Goierri eskualdeko natur ondarearen goratzea lortu asmotan aurtengorako argazki lehiaketa bat antolatzea pentsatu du. Argazki lehiaketa honen helburuetako bat Goierriko biztanleak parte hartzea da, bide batez bertako natur ondareak diapositiba bidez isladatu eta ezagutzera emanaz. Diapositibekin material desberdinak jorratu nahi dira, gizartearen sentikortzearekin bat, argazkiekin gozatzeko 2006rako egutegi batekin batipat.

Oinarriak

1. Parte hartzaile bakoitzak gehienez 4 diapositiba aurkez ditzake, apaizatu modalitatean (35 mm). Hauek Goierri inguruan oinarrituak behar dute izan.
2. Diapositibetan Goierriko Ondare Naturalak identifikatu behar izango dira, flora eta faunaren kasuetan ezik. Azken hauetan non hartuak diren adierazi beharko dira. (Inguruaren izena behintzat)
3. Lehiaketan, edozein argazkilari zaletuk parte har dezake.
4. Diapositibak Landarlan Elkartean egoitza jasoko dira (bulego ordu egian). Bertara, Apirilak 29 baino lehen ekarri beharko dira beranduenez. Postaz zertifikaturik, egun hori hartuko da azken bezala, eta kasu horretan ere helbide hone-tara bidali beharko da:
Landarlan Elkartea
Santa Maria 4, 1º (Goi-men) 20240 Ordizia
(Torrea etxea, korreos ondoan)
5. Diapositibak, ongi babestuak, sobre itxi batean sartu behar dira. Sobre

itxiaren azalean goitizena bat azaldu beharko da. Barruan, beste sobre batean goitizena izen abizenak, helbidea, herria eta telefono zenbakia jasotzen duen orri bat.

6. Lehenengo 12 diapositibei emango zaie saria. Lehenengo saria: 300 euro. Bigarren saria: 200 euro. Beste 10 sari bereziak: 100 euro.
7. Epaimahaia, Landarlan elkartearen ordezkari eta argazkigintza arloko zenbait adituez osatutakoa izango da, argazkiaren kalitatea, zailtasunak eta natur ondarearen goratze ahalmena baloratuko direlarik batipat.
8. Diapositiba irabazleak 2006an Landarlan Elkar-

teak aterako duen egutegian azalduko dira. Beti ere egilea aipatuaz, aurkeztutako argazkiak beren materialetarako erabili ahal izango ditu Elkartek.

9. Diapositiba guztiak beren jabeek itzuliko zaizkie.
10. Aurkeztutako diapositiba guztiak, Ordiziako Barrena Kultur Etxean emango dira ezagutzera proiektio emanaldi bitartez. Bertan epai mahaia- ren falloa eta sari bana- keta egingo da, maiatza- ren 20ean, arratsaldeko 7etan.
11. Diapositibak orain arte- an beste sariketatik aur- keztu gabeak eta editatu gabeak beharko dute izan.



landarlan

Argazki lehiaketa



JAKIN BEHARREKOAK

Itzalaldiaren alde argia:

2003ko abuztuaren 14an, 50 miloi biztanle 30 orduz argirik gabe utzi zituen itzalaldi batek AEBtan eta Kanadan. Abuztuaren 15ean behe-atmosferan bildutako datuak argitaratu dituzte orain ikertzaileek eta horien arabera airearen poluzioa uste baino askoz gehiago jaitsi zen: ozono kontzentrazioa erdira jaitsi zen, sulfuro dioxidoa % 90 gutxitu zen, eta Pennsylvania gainean ohikoa den lainoa desagertu egin zen. Beraz, egunez argitasuna areagotu egin zen.

Etxe blokeetako hiri inguruneek urbanizazioek baino energia gutxiago gastatzen dute:

Nafarroako Unibertsitateko ikerketa baten arabera eraikitako metro karratu bakoitzean kontsumitutako energia bi aldiz handiagoa da familia bakarreko eta adosatutako etxeetan, etxebizitza kolektiboetan baino. Blokeetako etxebizitzak dituzten hirigune konpaktoek urbanizazioek baino gastu energetiko gutxiago dutela diote eta baita azaltzen dute hiritar askok urbanizazioak bizitza kalitatearen adierazletzat hartuak direla, horrela Europar hiriak eredu amerikarra imitatzen ari direla, eredu horretan etxe bakarrek eta adosatuek lurzorua inbaditzen dutelarik. Hala ere, adituek diote urbanismo berri horren ingurumen inpaktoa nabaria dela. Ikerketak kontsumo energetikoa kontabilizatzen du, bai eraikuntzan zein urbanizazioan, nola erabilitako materialetan.



Aste Santuan goierritarrek nora joko dute?

Denetarik dago. Karibe, Kanariar irlak, Europako hiriburuak, Penintsulako kosta, eskia...

Aste Santua aurten hain goiz izateak, eragin al du tokia aukeratzeko orduan?

Orokorrean ez. Jendeak urteroko ohiturak hartuta ditu eta gehienek estilo bereko destinoa aukeratu dute, berdina ez bada.

Jendeak zer bilatzen du?

Leku berriak ezagutzeaz gain, eguraldi epela eta egunero-kotasunari nolabait ihes egitea.

Oporrak zatikatu egiten al ditu jendeak?

Gero eta gehiago. Lehen urtean behin egiten zituen jendeak. Gaur egun bi edo hiru alditan banatzen saiatzen dira.

Bidaia bat aukeratzeko garaian zein gomendio eman-goz zenuke?

Nire ustez, edozein bidaia izanda ere, garrantzitsua da norbera erakartzen duen leku bat aukeratzeari, beti ere errazagoa izango baita bakoitzaren gustura antolatzea eta bidaiatzeko gozatzea.

Jendea ideia finkoekin etortzen al da?

Gehienetan bai. Dena dela, badago gure aholkuen bila etortzen denik ere. Horretarako gaude.

Zure ametsetakoa bidaia:

Edozein, baina baldintza pare batekin: konpainia onean izatea eta epe muga luzearekin.

“Nire ametsetakoa bidaia, konpainia onean eta epe muga luzearekin”

Egin duzun bidaiarik politena:

Bidaia guztiak izan dira politak, izan ere denek dute beren xarma. Baina bat aukeratzekotan, Portugalera joan ginenekoa aukeratu nuke. Ez ikaragarritzko bidaia izan zelako, baina bai oso ondo ateratzen zelako. Oroitzapen onak ekartzen dizkit.

Bidaia antolatuak ala inprobisatuak dituzu nahiago?

Normalean bidaiatzeko egun gutxi izaten ditut eta nahiago dut erabat ez bada ere aurrez antolatua izatea, izan ere askoz hobeto aprobetxatzen da denbora eta leku gehiago ezagutzeko aukera ematen du.

Hotza ala beroa?

Nahiago beroa. Hotzak tristura ematen dit.

Mendia ala itsasoa?

Bizitzeko mendia. Bidaiatzeko biak.

Zer eramango zenuke irla huts batera?

Lagun on bat eta pare bat liburu.

Goierriko txoko bat:

Segura. Lasaitasuna nahi duenarentzat txoko ederrak badi-tu.

Amets bat:

Bat ez, asko. Baina handiena, egunen batean, bizitza lasaia edukitzera iristea arazo eta ardura minimoekin.

ZUZENKI
A HOLKULARITZA



Abokatuak

**Enpresen asesoria
eta gestioa**

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Elosgi, 16 LAZKAO

e txekin

www.zuzenki.net



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN





Ordizia: Europako gazten hiriburu

*Martxoaren 30etik
apirilaren 2ra*



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL 15-149 105 1 64/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)




TXIMINIA ELEKTRIKOAK **ESTALDURAK** **EGUR BARBAKOAK**
(Irteerarik gabe) (Harlanduak-simulazioa)


Mugitegi industrialdea, B bidea, 6 **URRETXU** **665 737 302**



**Jauregi
TOLDOAK**




INSTALATZAILE OFIZIALA



LLAZAPLUS ZENTROA
T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr.

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk.
R.P.S. 213/97 **BEASAIN**



Martxoaren 30etik apirilaren 2ra

Aste Santuko asteazkenean egin ohi den Artzain eguna-ren bueltan antolatu da guztia. Martxoaren 30ean izango da Artzain eguna. Idiazabal Gaztaren denboraldi berriaren iragarpena egingo du, Jose Ramon Berriozabal, Gasteizko Ikea jatetxe sukaldariak egingo du. Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, Nazioarteko Gazta kongresua eta gazten herrien arteko topaketa izango dira. Apirilaren 1ean, arratsaldeko 6etan, inauguratuko da Europa Gazta azoka eta apirilaren 2an azkenik, Ordiziako Idiazabal Gazta kofradiak, uztailean egin ohi duen kapitulua egingo du.

Nazioarteko ordezkariak

Bi egunetan luzatuko da Gaztaren kongresua. Herri Antzokian egingo da eta bertara joan nahi duenak, aurrez izena eman behar du.

Gaztaren inguruko gai ezberdinak landuko dituzte bertako eta kanpoko adituek. Gaztaren Europako Herrien Batzar Nagusiko arduradunak, Jatorri Izendapenetako adituak, Euskal Herriko Unibertsitatekoak, Frantziako 'Institut de l'Elevage' eta 'Cirval'ekoak, Madrilgo Nekazaritza eta Arrantza Ministeritzakoak, sukaldariak, ekoizleen taldeko kideak, laguntzakoak,

Martxoaren 15ean Donostian egin zuten azokaren eta kongresoaren aurkezpena.
Arg.: Maider Del Olmo.

Martxoaren 30etik apirilaren 2ra bitartean, gazta izango da protagonista nagusia Ordizian. Artzain Eguna, Nazioarteko Gaztaren Kongresua, Gaztaren Europako Herrietako ordezkarien bilera, Idiazabal Gazta kofradiaren kapitulua, Europako Gazta azoka... denetarik izango da. Idiazabal Gaztaren ondoan, Europako eta Estatu Espainiarreko hainbat gazta eza-gutu, erosi eta dastatzeko aukera izango da. Artisau eran, behi, ardi eta ahuntz esnez egindako gaztak izango dira guztiak.

Bi urte atzera egin behar dira Europako gazta azokaren eta kongresuaren antolaketaren arrazoiak aurkitzeko. Manolo Iturrioz Ordiziako Udaleko zinegotziak adierazi digunez, "Jesus Mari Lariz zinegotziak eta Alejandra Iturrioz alkateak Trujillora (Extremadura) egin zuten bidaian, bertako gaztaren Jatorrizko Izendapenak, Europako Herrien berri eman zigun eta Estatu Espainiarrean, Europako gazten azoka egiteko asmoa zutela esan ziguten. Gurekin harremanetan jarri eta 2003ko iraileko azokara

gonbidatu egin genituen. Txundituta gelditu ziren. Sukaldarien eta komunikabideen presentzia, produktoreak, giroa, jendea... 2003ko urrian bertan, Europako Gazta Herrien Batzarreko kide egin gintuzten. Urriaren amaierarako, berriaz, Europako gazten ekimena aurrera eramateko gonbitea luzatu ziguten".

Antolaketan parte hartu beharko luketenekin hitz egin, eta berehala erabaki zuten baiezkua. "Oso erantzun ona izan dugu", gaineratu du Jesus Mari Lariz azokaren antolatzaileak.

ASEPLAN S.L.

AHOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Osinalde s.l.

DESQUAZEA

Tel.: 943 16 22 07
943 88 70 48
Faxa: 943 88 28 01

car.osinalde@terra.es
Igara industrialdea, z/g
ORMAIZTEGI


kofradiak, artzain eta sukal-
dari eskoletakoak...

Nazioartetik ere parte
hartze zabala iragarrita da-
go. Italia, Suitza, Frantzia,
Alemania, Espainia, Eslova-
kia, Danimarka, Portugal,
Mexiko eta Japoniatik eto-
rriko dira. "Japoniatik, mul-
tinazional bateko zuzenda-
ria etorriko da (hotel kate
bateko presidentea, 95.000
aleko tirada duen egunkari
bateko...), beste lau lagune-
kin batera. Japonen ere ba-
da gazten herrien batzar ho-
ri", zehaztu du Iturriozek.

Gazta mota ugari

Apirilaren 1ean eta 2an
izango den Europako Gazta
azokan, ahuntz, behi eta ar-
di esnearekin egindako gaz-
ta ugari izango da aukeran,
dastatu eta erosi nahi due-
narentzat. Euskal Herri oso-
ko gaztak (Erronkari, Idia-
zabal eta Ossau-Irati), Gali-
zia, Asturias, Cantabria, Le-
on, Aragoi, Katalunia, Ma-
llorca, Extremadura. Teneri-
fekoak zalanztan daude.
Europakoak ere bai, Fran-
tzia, Alemania, Holanda,
Suitza, Danimarka, Ingalate-
rra, Eslovakia, Portugal eta
Italiakoak. Guztira 40 bat
gazta postu jartzea nahi du-
te antolatzaileek.

Plaza Nagusian eta bere
inguruan egingo da azoka.
Plazaren gaikaldean jarriko
den karpan, gazta arrazioak
edo tablak dastatzeko auke-
ra izango da, ardoarekin eta
txakolinarekin lagunduta.




Gaztaren Europako Herriak

2003. urtean izendatu zuten Ordizia, Gaztaren Europako
Herrien elkarteko kide. Gaur egun, 15 herrik osatzen du-
te elkarte eta Espainiar Estatuko bigarren herria da Ordi-
zia, Extremadurako Trujilloarekin batera.

Historia luzea duen elkarte da Gaztaren Europako
Herriak Elkartea. Manolo Iturriozek azaldu digu, bere so-
rterako filosofia eta helburua. "Gazta metodo tradizio-
naren bidez egitea defendatzen du Gaztaren Europako
Herriak Elkartea. Genevako Kongresuan, 1911. urte al-
dera, ikusi zen produktore amerikarren presioari aurre
egin behar zitzaioela. Amerikarrak, gazta industrialarekin
hasi ziren, esne kantitate handiekin lan eginez, esnea ego-
siz... hau da, Europan tradizionala ez zen sistema alegia.
Metodo tradizionalarekin egiten ziren gaztak desprestigia-
tzen hasi ziren. Defentsa horren alde, produktore eta he-
rrien arteko mugimendua sortu zen Frantzian".

15 herri

Ordiziarekin batera Elkartea osatzen duten herrien ze-
rrenda duzue segidan: Alkmaar (Herbeherak), Appenzell
(Suitza), Bergamo (Italia), Crema (Italia), Herve (Belgika),
Lindenberg (Alemania), Liptousky Mikulas (Eslovakia),
Melun (Frantzia), Sante Maure de Touraine (Frantzia),
Saint Vincent (Italia), Seia (Portugal), Seichamps (Fran-
tzia), Slovenia (Eslovenia) eta Trujillo (Espainia).



GOIERRITARRAREN gehiarri berezia

Martxoaren 30etik apiri-
laren 2ra bitartean Ordi-
zian gaztaren inguruan
egingo diren ekitaldi
guztiak bildu ditu GOIE-
RRITARRA aldizkariak, al-
dizkariarekin batera ba-
natu den gehigarrian.

Pottoka, Martinez eta Tolo-
sako Fronton tabernakoek
bideratuko dute. Azokako
gastak egongo dira dasta-
tzeko aukeran.

Errekonozimendua

Ordiziako udaletxean gus-
tura daude horrelako ekital-
di bat antolatzeko hartu du-
ten arduragatik. Manolo Itu-
rrioren esanetan, "sektore
honen alde Ordiziak gasta-
tzen duen dirua ikusita, tar-
tean gazta, Ordiziak merezi
duela errekonozimendu ho-
ri".

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ 24 orduko asistentzia
- ✕ e.a.

Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

TOLARE

SAGARDOEGIA

☎ 943 18 01 19 ATAUN

Erlezain eguna Zegaman

Martxoak 30, asteazkena:

19:00etan: Olarango Gizar-te Zentroan, Goierriko Gozogintzaren bilakaerari buruzko hitzaldia, Ordiziako Unanue gozotegiko Jose Mari Unanueren eskutik. Ondoren gozogintzako produktuen dastaketa egingo da.

Martxoak 31, osteguna:

19:00etan: Zegamako Udaleko Areto Nagusian, Erlearen inguruko mitoak eta Euskal Herriko erlazaintzari buruzko hitzaldia Manex Lanatuaren eskutik.

Apirilak 2, larunbata:

22:30ean: Zegamako Udal pilotalekuan, bertso jaialdia, Kasino Elkarrekin antolatuta eta Zegamako Udal Kultura Batzordeak babestuta. Bertsolariak: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia, Jesus Mari Irazu eta Nahikari Gabilondo. Gai jartzailea: Josu Goikoetxea.

Apirilak 3, igandea:

Erlezain eguna:

8:00etatik 9:00etara: Argazki raliaren izenematea, Udaletxean.

10:00etan: Txistulariekin kalejira goizean zehar.

10:30ean: Jai hasiera.

Euskal Herriko gozogile onenen produktuen erakusketa. Eztiz eginiko gozo eta

Babeslea:

G. Erlezainen Elkartea



postreen txapelketa.

11:00etan: Gipuzkoako VII. Ezti lehiaketaren hasiera (milalorea erako eztiaren lehiaketa izango da eta bailarako txapelketetan sariak aurkez daitezke bakarririk).

12:15ean: Durrumbaren hasiera Aseginolaza Anaiei kaletik.

12:30ean: Durrumbaren amaiera eta Amaia Zubiria eta Zegamako Orkatx Txiki Abesbatzaren ekitaldia durrumbarekin batera, ondoren "erlakumearen bilketa".

12:45ean: Urteko erlezaina, Antton Adarraga, omenduko da.

Ondoren Zegamako Udalak, Antonio Guridi erlezain herritarri errekonozimendu ekitaldia eskainiko dio.

13:00etan: Sari banaketa gozogintza eta ezti lehiaketan.

13:15ean: Gozoki zein ez-

tien doaneko dastaketa popularra egingo da. Aurkeztu diren, eskualdeko ezti finalistak dastaketa aukera, GE-Eko eztiak dohainik eman go dira 'Kaiku' yogurrekin edo Zegamako okindegiak eskainitako ogiaz lagunduz. Goizean zehar egingo dako txokolatea banatuko da gozogileen eskutik.

14:15ean: Bazkari herrikoia, herriko Ostatuan. Bazkari, txartela 20 euro. Bertan erlezain ekipoa zozketatuko da. Izen ematea Zegamako udaletxean (Eduene 943 80 13 51), martxoaren 30 baino lehen.

18:30ean: Urrezko aizkora lehiaketa 2005 (kanporaketa) (E.T.B. Kaiku Sari Nagusia) Udal Pilotalekuan. X. Orbegozo 'Arria V', azkeneko kanporaketan sailkatutakoaren aurka. (Etxebeste, Erasun edo Zubiaga); J. M. Peñagarikano, azkeneko kanporaketan sailkatutako-

aren aurka. (Senosiain II, D. Vicente edo J.J., Erdozia).

Jarduera osagarriak:

● **Txoznak:** Artisautza, produktu ekologiko, senda belar, ezti, argizari, propoleo, e.a. saltzen.

● **Talogleak.**

● **Herritar zein Elkarrekin postuak** (Aizkorriko Lagunen Elkarrekin adibidez) eta Gipuzkoako Erlezain Elkarrekin informazio gunea.

● Erlearen munduan erabiltzen diren tresnen erakusketa: erlauntz, auspo, espátula, estraktore, moztorra eta abar.

● **Erakusketa mugikorra,** erlazaintza eta ingurugiroa, panel informatibo batzuk kokatuko dira kalean.

● **Erleak zuzenean:** Jendearen jakinmina bete asmoz, kristalezko (PVC) kaja antzeko batzu erabiliaz, erleek erlauntzaren barruan izaten duten bizitza ikusi ahal izango da.

● Argazki lehiaketara aurkeztutako argazkien erakusketa.

● "Argizaria lantzen" erakusketa praktikoa.

● Euskal Herriko gozoki onenen doaneko dastaketa.

● Gipuzkoako ezti desberdinen dastaketa "Kaiku" yogurtarekin batera.

● Txokolate beroa bertaruentzat.



Egurrezko lehiak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Goierriarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:


Helbidea:

Herria: Tfnoa:

NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierriarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia



MULTIOPTICAS

al-aire
armazoiak

95€



eta opari
polarizatutako eguzki-klika

Nork esango zion Joni click batekin
al-aire betaurrekoak
eguzkitako betaurreko bihurtuko zirela



R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA


Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA



autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako mintegiak

Softwarea eta Aplikazio Informatikoak Alokatzeko Zerbitzuak

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Teknologia azkar zaharkitzen da. Softwarea alokatuz gero, programak erosteko **kostu finkoez ahaztu eta ez duzu instalazio eta mantentze lanaz kezkatu beharrik izango**. Mintegi honetan, zerbitzu hauek kontratatzeko diru laguntza nola lor dezakezun ere erakutsiko dizugu.

Goierri - Urola Garaia
apirilak 7
ORDIZIA
Goierri Lanbide Eskola

Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:

902 252 595

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioaren Foru de Gipuzkoa

euskadi
Informazioaren Teknologia

e-gipuzkoa

SPRI



Miramón
Enpresa Digitala

Antolatzailea:



D'Elikatuz

Goierriko Turismo bulegoa, eta Elikadura eta gastronomia zentroa

Atzo, martxoak 17, Ordizian, D'Elikatuz zentroa inauguratu zen. Ana Agirre, Jaurilaritzako Industria eta Turismo sailburua izan zen bertan. Bi zati nagusi ditu Interpretazio Zentroak: batetik, Goierri eskualdeko turismo bulegoa eta interpretazio zentroa; eta bestetik, elikadura eta gastronomia zentroa. Hiru solairutan banaturik dago D'Elikatuz. Ordiziako Udalak eta Goiturrek (Goierri Turismoa) Goierriko turismoa sustatzeko eta dinamizatzeko elkarteak osatu dute guztia.

KEMEN

KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

MUJKA 19

MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

JoXi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

Euskal Autonomia Erkidegoan, eskualde mailan ireki eta osatu den lehenengo turismo bulegoa da Goierrikoa. Ordizia du kokaleku, Barrenetxe etxea. Ordiziako Udaren eta Goiturren (Goierri Turismoa) ekimenez burutu da Goierri eskualdeko informazio turistikoari buruzko gune kultural berria.

Zentro horren helburu nagusia, bertako produktuen bitartez Ordizia eta Goierri eskualdea, ikuspegi turistikotik sustatzea da, Ordizia, gastronomia eta elikadura osasuntsuarekin eta arduratsuarekin erlazionatuz.

D'Elikatuz Zentroak lau solairu ditu. Beheko solairuan eskualdeko turismo bulegoa eta erakusketa gela daude. Goierriko informazio turistikoari buruzko zerbitzua emateko diseinatua dago, Itourbask sarearen barruan, baita ekipamenduari buruzko berriarazko informazioa emateko ere.

Haurrek nahiz helduek bisitatu dezakete. Guztiek ere, oso modu grafikoan eta interaktiboan aurkituko dituzte euskal kulturaren hain errotuta dagoen gai honen inguruko txikikeriak. Gainera, antolatutako taldeek,



familiek zein bakarkako lagunek bisitatzeko antolatuta dago. Bestalde, Goierriko eskualdea hobeto ezagutu nahi dutenek, eskualdeko interpretazio-zentroa daukate beheko solairuan.

Lehen solairua: Goierriko interpretazio zentroa

Lehen solairuan Goierriko interpretazio zentroa dago, bost modulutan banaturik. Bertan eskualdeko ezaugarri garrantzitsuenak azaltzen dira, honako elementu hauek nabarmenduz: festak eta ohiturak, historia eta artea, Goierriko ibilbideak eta bertako 18 herriei buruzko informazioa. Batez ere turistei bideraturik dago informazioa.

Goierri, bisitatzeko txokorik politenak zein diren adieraziko da bertan. Gainera, eguneko txangoak ere proposatzen dira bertan eta Ordizia inguruko herriek eskaintzen dituzten aukera ugarien berri eman.

Maketa, diaporama, benetako material eta argazkien bidez, turismoaren aldetik interesgarriak diren elementu eta ezaugarri nagusiak erakusten dira.



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierri egindako
sukaldeak

Goiklinik
osasun zentroa

- Dietetika eta NutrizioaTel.: 636 21 82 40
- Psikologia eta Psikomotrizitatea ..Tel.: 656 76 10 40
- Pedagogia eta LogopediaTel.: 616 24 15 26
- PodologiaTel.: 635 00 66 30

Andrea Mari, 11 - 2. A (Notaria zaharra) - BEASAIN



Bigarren solairua: Elikadura:

Bigarren solairuan eta tei-latupean, elikadura eta gastronomia osasuntsuari eta arduratsuari eskainitako gunea dago. Bertan gastronomia produktuen balio elikatzailea eta herriko elikadura produktuen ezaugarri nagusiak sustatzen dira, baita beste elementu aipagarri batzuk ere, esaterako: azokak, txokoak eta elkarte gastronomikoak,... Horiek guztiek gastronomia esparruan erreferente bihurtzen dute

Ordizia. Elikaduraren eta gastronomiaren ezaugarri nagusiak erakusten ditu, bertako betiko produktuen elikapen-balioen alde egin.

Bigarren solairuan, dastamenari eta osasunari eskainitako txokoa dago. Dastamenaren arloan, gure lurrak ematen dituen elikagaien zaporeak eta testurak ematen dira ezagutzera. Osasunaren arloan, berriz, elikagaiez, dieta orekatsuez, elikadura-arazoez... hitz egingo dute.

Laburbilduta, Elikadurari

eskaintako kultur eremu berria aurkituko duzue bertan.

Elikadurari dagokionez, alderdi hauek dira aipagarrienak:

- Elikaduraren garrantzia eta historian zehar izan duen bilakaera.
- Elikagaien nutrizio-ezaugarriak.
- Elikapen-ohitura osasuntsuak eta desnutrizioaren eta gaizki elikatzearen eragin negatiboak.
- Dastamenaren garrantzia eta ezaugarriak
- Elikagaien eraldakuntza-

ren bilakaera historikoa.

Informatu eta erakutsi egingo den tokia izateaz gain, gastronomia eta elikadurarekin zerikusia duten promozio eta heziketa izaerako beste ekintza batzuk ere garatuko dira bertan.

Azkenik, toki berri horrek elikaduran eta gastronomian erreferente izan nahi du Estatu mailan, eta Ordizia eta Goierriko eskualdean interes turistikoa duten beste elementu batzuk bisitatzen dituzten turistaren eta bisitariaren joan-etorria handitu.



ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA





aulia

TOLARE
SAGARDOTEGIA


☎ 943 80 60 66

Aulia-enea
LEGORRETA

Autowag




☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxe: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN



Freskagarriak
Refrescos

45_{kal/cal}



Teilatupea: Gastronomia



Gastronomiaren arloan, oinarritzko hiru elementu hauek eskaintzen dira, Euskadiko gastronomia ezagutzera eman eta interpretatzeko:

- Idiazabal gazta, Euskal Herriko produktu tipikoe-tako bat dena
- Ordiziako merkatuaren tradizio historikoa eta garrantzia
- Euskal sukaldaritzaren balioa, munduko ospetsue-netakoa den aldetik.



berriz

AMAYA ARZUAGA
MIRIAN OCARIZ
ISABEL MARANT
PAUL & JOE
HOSS
MISS SIXTY

FRENCH CONNECTION
DIESEL
FOR ALL MANKIND
ANTI-K BATIK
EARL JEANS
SCOOTER

BEASAIN

DONOSTIA

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

Oianguko proiektua mahai gainean

Eztabaida eta zeresan ugari sortu da Ordizian

Patxi eta Unai Sanz, eta Iker eta Iñaki Aierbe dira Ikengu 05 S.L. enpresako kideak, Ordiziako Oianguko proiektua zehaztu eta bideratuko dutenak. Biarritzeko golf zelaiera egindako bidaia batean golfaz zaletu eta Goierrin edo Gipuzkoan golf zelai bat jartzeko ideiak bideratu ditu Oianguraino. 2.000.000 euro-

ko aurrekontua duen proiektua, poliki-poliki gauzatuko dute. 2007rako, guztia amaitutzat egotea espero dute. 25-30 lanpostu sortuko omen dira.

Proiektuak zeresan ugari sortu du Ordizian. Proiektua bera, eta kontrakoan arrazoiak ezagutuko ditugu hurrengo lerroetan.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Golf zelaia jartzeko kokaleku bila hasita zeuden Ordiziako Ikena enpresakoak. Mutiloan hasi, ondoren Albizturren... "Horrela ari girela, Oiangu etorri zitzaigun burura. Zinegotzi batekin hitz egin eta kontzesioa 2004. urtean amaitzen zela esan zigun. Hurrengo lehiaketarako proiektu bat garatzeko gomendatu zigun. Proiektua enpresa baten izenean aurkeztu behar zen eta ezin genuen aurrez enpresa berria sortu. Beraz, Ikenaren izenean aurkeztu ginen lehiaketara. Gero sortu da Ikengu enpresa. Lehiaketara gu bakarrik aurkeztu ginen", adierazi du Iker Aierbek.

Proiektua garatzen hasi zirenean, "garbi geneukan gaur egungo erabilera ezin genuela murriztu, hau da, mahaiak eta erretegiak berdin mantendu behar zirela. Lehen erabiltzen zen lurretatik ixten dena, baina erabilera publikoa izango duena, etxetik ezkeraldera gelditzen dena izango da. Berau praktikatako kantxa izango da. Futbol zelaia ere galdu egingo da. Mahaiak dauden beste zati bat ere bai, baina beste leku batean jarriko ditugu", dio Unai Sanz, Ikenako bazkideak.

Zerbitzu ezberdinen inguruan kontsulta ugari egin ondoren, burutu dute proiektua. "Oiangu udako hilabeteetan bakarrik erabili beharrean, urte guztiari begira lan egingo dugu", zehaztu du Aierbek. Horrekin batera, gaur egun erabiltzen diren baino lursail gehiago jarriko omen dira herriarren zerbitzura. "Jendeak uste du kateraino lursailak bakarrik direla Oianguenak, baina ez da horrela. guk katetik gorako lursailak erabiliko ditugu. Oiangu txiki baserria eta lursailak ere Ordiziako udalarenak dira, hango familiak, 20 urtera arteko erabilera daukate eta haiek in-

hizketan ari gara eta jarrera ona daukate, guk lur horiek denak erabili ahal izateko. Langatik beherako lursailak ere erabiliko dugu. Lursail horiek ez ziren ezertarako erabiltzen. Sasiz betetako lursailak dira. Sagarrondoak ere badaude baina inork ez ditu biltzen", zehaztu dute.

Aterpetxearen lekuan, hotela moldatuko dute, turismoan Goierriko duen gorakada ere aprobetxatu nahirik. "Inguruko herri gehienetan hotelak badaude baina Ordizian ez dago hotelik. Gazte Kongresura datozenentzat, adibidez, Ordizian ez dago oherik". Horrekin batera, bizia eman nahi diote Ordiziari.



Fasekako proiektua

Oianguko proiektua faseka burutuko dute Ikengukoek. "Udarako, betiko erabilerak ez du mugarik izango. Mahaiak eta erretegiak % 100enean izango dira, taberna eta jatetxea ere irekita egongo da. Praktikatako pista eta paintball pistak eginak egotea nahiko genuke". 2007ko udazkenetarako guztia bukatuta egotea aurreikusten dute.

Aurrekontua

2.000.000 euro inguruko aurrekontua du proiektuak, hau da, 300.000.000 pezeta.

Kontzesioaren hipoteka

Hipotekaren inguruan esan direnak entzunda, zera zehaztu nahi du ordiziarrek: "Kontzesioaren hipoteka egiten da. Lurraldea ez da hipotekatzen, kontzesioa bera baizik, lurra esplota-

tzearen eskubidea".

40 urterako

40 urterako kontzesioa eman diote Ordiziako udalak. "Horrelako inbertsio bat eta horrelako arrisku bat hartuta, normala da hainbeste urtekoa izatea, urteak behar baitira buelta emateko eta etekin bat lortzeko", zehaztu du Iñaki Aierbek.

Ordaindu beharrik ez

Iñaki Aierbek argitu nahi izan duenez, "Oiangura etortzeko garaian, ordaindu egin beharko duela zabaldu da. Hori ez da egia. Gaur egun mahaiak dauden lekuetara joateko ez da ezer txo ere ordaindu behar. Leku aldetik ere ez du leku gutxiago izango. 75 mahai daude eta guztiak mantenduko dira".

"Pobreen golfa"

Pitch&Putt zelaiak, makina bat zeresan sortu du, kirol elitista dela argudiatuz. Dena den, eskiarekin gertatu den bezala, golfa, herritarrengana gerturatu nahi dute Ikengukoek. "Golf klubetan, urtean 3 milioi inguru

ordaindu behar dira eta jokatzeagatik 10.000 pezeta inguru. Hemen abonatu nahi izanez gero, tarifak honakoak izango dira: lehenengo bi urteetan, 80 euro hileko eta hortik aurrera 50 euro hileko. Urte guztian 100.000 pezeta. Donostian badaude kiroldegiak hori kobratzen dutenak. Beraz, elitismo etiketa hori kendu egin nahi dugu. Abonatuak ez denak ere jokatzeak aukera izango du, 9 zulo 20 euroren truke. Eskiatzea hori baino dezente garestiagoa da eta gaur egun eskiatzera edozein joaten da", diote. Bazkide egin nahi duenarentzat telefono zenbaki bat jarri dute harremanetarako: 690643208.



Oianguko zerbitzu berriak

● Pitch&Putt zelaia.

Neurri txikiagoko golf zelaia dela esan liteke. Gaur egun, erabiltzen ez diren lursailetan kokatuko litzaiteke. "Lurra eta belarra egokiak dira baina grinak egiteko tratamendu berezia egin behar zaio lurrari. Eskabadorak sartu beharrean daude, lurra moldeatu egin behar da eta".

Zuhaitzak landatzeko asmoa daukate: "100 bat zuhaitz atera egingo ditugu, baina 250 bat berri sartuko ditugu. Horietatik 40, bertan dauden sagarondoak izango dira. Zuhaitzak: bertako zuhaitzak aldatuko dituzte: haritzak, pagoak, akaziak..."

Ureztapenerako, estanke artifizial bat egingo dute. "Euri urak horra bideratuko dira, erregadiokoak ere bai".

Irlandan sortutako kirola da 'Pobreen golfa' deitzen omen zaio. "Erabilera publikoa du eta normalean ez die erabiltzaileei mugarik jartzen. Golf zelaia pribatuak dira. Beraz, elitismo etiketa hori kendu nahi diogu. Oso kirol polita da. Adin batetik aurrera,

hainbat kirol egiteko mugak izaten ditugu eta Pitch&Puttak aukera ematen du. Adin guztietako jendearentzako kirola da", zehaztu du Unai Sanzek.

Golfa 14 makiletako joko behar izaten da. "Pitch&Puttean, ona izanez gero, bi makilekin bakarrik jokatu daiteke, hau da, pitch makilarekin eta putt makilarekin. Txarrenek, 7 makilekin jokatzen dute", gaineratu du.

Pitch&Puttean aritzeko materiala 5 eurotan alokatuko dute.

● Paint balleko pista.

Taldeakako ekintza da paint ball eta pinturazko bolak botatz, gerrak egiten dira. "Gipuzkoan, Lasturren eta Jaizkibelen dago paint ballean jolasteko aukera. Gazte jendearen artean arrakasta handia dauka. Katalunia aldean, federazioa ere sortuta dago kirol honetan".

● Igerilekua.

20 x 10 neurria izango du igerilekuak. Sakonera, 1,20 m - 1,50 m tartekoa. Haurrek 2 euro eta helduek 3

euro ordainduko lukete. "Igerilekua planteatu genuen lehenengo momentutik, Udal Kiroldegiko Jose-txo Elkororekin hitz egin genuen asmoa nola ikusten zuten jakiteko. Inolako kirol planteamendurik egiten ez bazen, inongo arazorik ez legokeela esan ziguten. Freskatu bat hartzeko putzua izango da. Ordiziako igerilekuei arnasa emango diegu".

● Taberna edo kioskoa.

Igerilekuetan, tabernatxo bat eraikiko dute, uda partera begira, zerbitzua emango duena. Komunak eta aldagelak ere bertan izango dira.

● Ibilbideak.

4 kilometro inguruko ibilbideak ere egokituko dituzte, inguruan, dauden bidetxurrak txukundu eta aprobetxatuz.

● Hotela.

2 izarretako hotela izango da. 18 logela izango ditu. Gaur egun Goierriko hotelak duten tarifa bera izango omen du. "40 euro inguruan dabil logela bikoitza".

● Jatetxea.

Etxeari jangela gehituko zaio, eraikuntza metalikoarekin, ospakizun handietarako, ezkontzetarako adibidez, egokia, 240 lagunentzako lekuarekin. Eguneko menua eta ohi-ko karta zerbitzua ere izango dira. Biharko egunean, egitura metalikoa kentzeko aukera izango da.

Jatetxea, urte guztian egongo da zabalik, egunero, goiz, eguerdi eta arratsalde.

● Aparkalekua.

Etxearen atzealdean, aparkalekua egingo da 35 ibilgailuentzako. Negu partean irekia izango da. Udan, hoteleko bezeroentzako eta abonatuentzako egongo da zabalik.

Gaur egun dauden aparkalekuak egokitu egingo dira, aparkatzeko leku gehiago irabaziz. 3 autobusentzako lekua ere prestatuko dute.

Proiektua zehatz-mehatz ezagutu nahi duenak, martxoaren 30era arte, Barrrena Kultur Etxean du aukera.

Oiangu publikoa: guztiona eta guztiontzat

Horixe da ordiziar talde baten eskatzen duena, "Oiangu publikoa izatea, guztiona eta guztiontzat". Ikengu enpresak Oiangun egiteko asmoa duen proiektua salatzear gain, batez ere Ordiziako Udalaren jarrera salatu dute --, "legezkotasunik ez izateko zantzuak daudelako eta udalak prebikazioz jokatu" izan dezakeelakoan. Herrian plataforma eratzeko asmoa azaldu dute. Udalari, eta Ikenari ere bai, proiektua bertan behera uztea, Oianguko baserria eta lurak interes publikoaren zerbitzura jartzea eskatzen diote.



90.eko hamarkadan Oiangun Natur Eskola kudeatzen zutenei jarraitzeko aukerarik eman ez zitzairenetik, interes pribatu eta asmoa handiak izan dira Oianguren inguruan. 95ean bertan Udalak Dena Sport Irungo enpresa bati hiru urtetako kontzesioa eman zion ustiaketaz arduratzeko (asmoa izugarria zen: milaka eta milaka gazte ekarri behar zituztela eskalada, piraguismoa... egitera). Ondorioa izan zen Udalak dirutza handia galdu zuela eta Oianguko baserria eta zelaiak hiru urtez erabat utzita izan zirela. Ondoren Oianguko lurretan zazpi txalet txikiz osatutako hotel pribatua aurkeztu zen. Zorionez asmo hura ez zen gauzatu erabat urratzen zituelako ingurune hura babesten duten arauak. Haren ondoren hainbat urtetan aterpetxea eta jatetxea izan dugu, baina ez da izan benetako ekimenik erabilera publikoko aisialdi gune moduan bultzatzeko. Azkenik, bertan zalditegi bat jartzeko asmoa ere aurkeztu zen udaletxean, hori ere

arauak betetzeko zailtasunekin aurkitzen zena (erakuntza berriak eskatzen zituene, osasun aldetik arazoak izan zitzaizkeen...), gogoratu dute.

Udalaren utzikeria

"Esan beharrik ez da Oiangu paraje zoragarria dela. Aukera paregabeak ematen ditu goierritar guztiok ederkiz gozatzeko. Baina Udalaren utzikeriagatik ez zaio behar bezalako probetxurik ateratu izan. Orain, ordea, erabilera osoago bat emateko aitzakiapean, Udalak, bere arduragabekeria eta ezintasuna ezkutatu, beste enpresa pribatu bati eman haren esplotazioko eskubidea", azpimarratu dute.

Ikenguren proiektuaren "legezkotasuna eta interesa" zalantzan jarri dute. "Nahiko arrazoi eta kontu ilun badaude, Udalak ez-

kutatu nahi dituenak, eta guk salatu eta ordiziar eta goierritar guztiei jakinarazi nahi dizkiegunak".

Lehenengo eta behin ondokoa diote: "Oianguren erabilera beti izan behar du publikoa. Baina egitasmo honekin neurri handi batean pribatizatu egiten da. Golfak lurren hiru laurdena bereganatuko du, eta erabilera libreko espazioa izugarri murriztuko da. Jakina, golfa elitista eta minoritarioa da, eta haren funtzionamenduaren oinarria kuota oso garestiak ordaindiko dituzten bazkideak izango dira".

Horrekin batera, Oiangu-Txiki baserriari Udalak berak duela 10 urte, eta beste 20 urterako emandako kontzesioa kenduko zaiola gaineratu dute. "Baina 200 urtez baserri horretan la egin eta bizi den fa-

miliaren eskubideak zapaltzen dira eta legeak eskatzen dituen baldintzak bete gabe".

Oianguren kontzesioa Ikena enpresari eman bainan kontzesioaz arduratuko den enpresa beste bat izatea ere ez dute begi onez ikusten. "Lehiaketan parte hartu ez duen eta oraindik existitzen ez den Ikengu enpresak, ordea, obrak Ikenari emango dizkio. Baina lehiaketan Ikenak irabazi du kontzesioaren esplotazioa, ez Ikenguk. Eta Ikenak ez du irabazi obren adjudikaziorik".

Hitzartutako hipotekaren eta abalen kontuen inguruan zera uste dute Ordiziarrek Gera plataformakoei: "Azken finean Udalak berak abalatu beharko du egitasmo pribatu hau. Gainera, onar al dezake banketxe batek halako esplotaziorako kontzesio baten abala duen operaziorik, ala Udalaren jabetza den lurra bera hipotekatu beharko da?", galdetzen dute.

Ikuspegi politikotik, proiektua ezkutuan eraman dela, informazio publikorik eman gabe, salatu dute.

Udalari, eta Ikenari ere bai, proiektua bertan behera uztea eskatzen dio Ordizarrak Gera plataformak.

Nikomedes Iguain beasaindarra hil da Argentinan

Buenos Airesen, otsailaren 27an, hil zen 77 urterekin Nikomedes Iguain Azurza beasaindarra. 1952. urtean emigratu zuen Argentinara eta harrezkero euskal kultura eta nortasunaren defendatzailea sutsua izan zen. Besteak beste, Juan de Garay fundazioaren sortzailea eta 'Eusketxe' euskal kultur etxearen bultzatzaile nagusia izan zen.



Nikomedes Iguain Beasainen jaio zen 1927ko maiatzaren 27an. Bere aita Pedro Jose Iguain, musikaria, alegitarra zen eta 1924an Beasaingo bandako zuzendari eta elizako organo jole egin zuten. Natalia Azurzarekin ezkondu eta zortzi seme-alaba izan zituzten, hauetan zaharrena zen Nikomedes. 1950ean frankismo giro itogarritik ihesi Argentinara joan zen familia guztia, baina, anai-arreben artean Nikomedes bakarrik geratu zen joan gabe. Valladoliden soldadutza egiten ari zela, propaganda abertzalea egiteagatik, atxilotu zuten eta bere sendia baino bi urte be-

randuago egin zuen Argentinarako bidaia.

Buenos Airesera iritsi orduko bertako euskal komunitatean lan handia egin zuen euskal kultura eta tradizioaren baloreen defentsan. 1957an 'Frente Nacional Vasco'-ren sortzaileetako bat izan zen. 'Eusketxe Eusko Kultur Etxe'ko sortzaile, ideologo, eta azken egunera arte zuzendari izan zen. 50. hamarkadaz geroztik hau izan zen bere asmo nagusia, 1962an aurkeztu zuen asmoa eta azkenik 1988an gauzatu ahal izan zuen.

Juan de Garay fundazioaren eta Mercedes-ko Eus-

kal Anaitasunaren sortzailea ere izan zen, sortzeko asmoa azaldu zuten hainbat eta hainbat Euskal Etxe berriren bultzatzaile bezalaxe.

Beasaindar euskaltzalea Lagun Onak abesbatzako bazkidea izan zen, euskara irakaslea, 'Instituto Americano de Estudios Vascos'eko partaide 1974az geroztik, Laurak Bat zentroko bazkide ere izan zen 1977an bertako zuzendaritzak eskatuta. Azken urteetan Laurak Bat zentroarekin desadostasunak izan zituen eta Eusketxe-aren alde egindako lanarengatik errekonozimendurik jaso ezak bere indarra ahitu zituen eta osa-

sun arazoak gehitu zitzaizkion.

35 urtez Buenos Aireseko La Sallen musika irakaskale, estetika saileko zuzendari eta organista izan zen. Piedad elizako organojolea musika konposatzaile ere izan zen.

Idazle bezala, berriz, 'Lingüística de la semiografía' eta 'Microvisiones personales' liburuak idatzi zituen. Honez gain euskal musika, kultura eta estetika-ri buruzko artikulua ugari egile izan zen.

Euskaltzale amorratua

Matias Garcia Goierri bizi den argentinarrak jakinarazi zigun Nikomedesen heriotzaren berri. "Izugarria izan zen Argentinan egin zuen lana. Kultura handiko gizona zen: musikan aditua, hizkuntzalaritza ere bai... Baina, batez ere, 'Eusketxe' bultzatzeko bere indar guztiak jarri zituen; berak zuen dena eman zuen proiektu hori aurrera ateratzeko. Hainbat eta hainbat jende inplikatu zuen euskal kulturaren aldeko lanean. Gu denok berari esker gara euskaltzale hein handi batean", azaldu digu.

TOLDOS OLANAK AGUSTIN
Jose Agustin Jauregi
Tel. eta Faxa: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288
Zubi-Erreka Industrialdea, 42 LAZKAO
toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Arraiak parrilan
© 943 65 21 76
ZALBIDE
TOLARE SAGARDOEGIA
ABALTZISKETA

Iñauti
Hortz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIKAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUJE ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
943 88 46 28

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA
Karnet mota guztiak
Aita Urdaneta
ORDIZIA
943 88 72 76

"Argentinan euskal kontzientzia pizten lan egin zuen"

Nikomedes Iguainen berri gertuagotik jakiteko Irene Lopez de Vicuña gure galderei erantzun die Argentinatik. Irene, Buenos Airesen jaio zen orain dela 38 urte. 20 urtekin euskara ikasteari ekin zion Euskalzaleak antolatutako ikastaroetan. Bere hizkuntza maila sakondu zuen Lazkaoko Maizpide barnetegian. Ordutik euskara irakaslea izan da Argentinan 15 urtetan.

Eusketxe Nikomedesen proiektua kuttuna izan da. Zein da elkarteak egin duten lana?

Niko Eusko Kultur Etxea-Casa de la Cultura vasca 'Eusketxe' proiektuaren zuzendaria zen hasieratik. Berea izan zen ideia, berak lortu zituen baliabideak, bai giza baliabideak zein dirua. Eusketxe izan zen bere ametsa eta Eusketxerako eta Eusketxegatik bizi izan zen.

Eusketxek urteetan zehar euskal kulturaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu ditu: tailerrak, hitzal-diak, ikastaroak, arte erakusketak, zine-debatea, euskal gaiei buruzko bideo-teka, etab. Honez gain gure egoitzan Ekin editoriala dago, gerra ondoren Irujo anaiek sortutako euskal editoriala. Argitaratutako 150 liburuak hemen soilik zeuden orain arte.

- Zein garrantzi du berak

egindako lanak?

Nikok berak egindako lanari begira, adibidez, erakusketak egin ziren baina aipagarriena da berak lortu zuela artista guzti horiek biltzea. Bera joaten zen hitz egitera artista bakoitzarengana, eta lortu zuen artista argentinarrak talde hau, jatorriz euskaldunak, elkartzea eta Eusketxera hurbiltzea, nolabait, neurri batean 'euskal kontzientzia' edo berpiztea. Berak esaten zuen 'despertar la memoria étnica' eta artistekin egin zuen bezalaxe egiten zuen beste guztiekin: idazle, edozein gaiko ikasle... Beti proiekturen bat zuen gogoan. Indar handiko pertsona zen, bizia, bizitasun kutsakorra zuen, garra zeriona.

Zer suposatu du Nikok Argentinako euskaldunentzat?

Nikok maila pertsonalean egiten zuena saiatzen gara egiten Eusketxetik: Euskal Herriari buruzko informazioa ematea, gure aitonamonen garaikoa, baita gaur egungoa, baita argentinarrak-euskaldunoi buruzkoa. Gure egoitzan egunero sartzen den jendeak asmo, nahi, behar, zalantza, jakin min mota askotakoak dakartza eta gure lana horiek asetzeko bidea erraztea da. Eta ahal bada berriak sortaraztea, parte hartzeko bidea ematea, hangoa eza-



gutuz gure bertako kultura aberastuz eta ahal dugun neurrian hangoaren erakuntzan ere parte hartuz. Tailerrak antolatzen ditugu, batzuk oso maila oinarrikoan, beste batzuk espezifikokoak... Desinformazioa handia da eta horri aurre egiteko kultur jarduera diferenteak antolatzen ditugu.

Nolakoa izan zen Nikori egin zenioten agurra?

Gaubeilarik ez zuen nahi, eta errespetatu zen. Kanposantura lagundu genuen eta han aureskua eta Agur Jau-

nak abestuz agurtu genuen. Bere errauntsak Argentinako Entre Rios probintziara eramango dira han baitaude lurperaturik gurasoak eta anai bat.

Meza eskaini zitzaion. *La misa de los vascos*, hilero egiten da Buenos Airesko San Joan Bautista elizan (Eliza hau da 1856an Argentinako euskaldunen alde lehen mezak egin ziren lekua). Baina asmoa da omenaldia egitea.


Dena den, oso egoera larrian gaude Eusketxan. Laurak Bat euskal etxea da Eusketxeko egoitzaren jabea eta epaiketa bat hasi zuten kanpora botatzeko.

Laurak Bateko egungo zuzendaritzakoek hartutako erabaki honek asko tristetu zuen Niko eta, argi dago, kalte handia egin ziola. Epaiaren arabera libre utzi beharko genuke lekua hila-bete honetan bertantxe eta zeregin hauetan gabiltza.

Duela 60 urtetik Buenos Aireseko Laurak Bateko eraikuntza berean aritu zen Euskaltzaleak instituzioak ere utziko du euskal etxea, Beraz, asmoa da Ekin argitaletxeak, Euskaltzaleak-ek eta Eusketxek elkarrekin lan egitea etxe berri batean. Erronka handia da baina horixe da Nikori egin diezaiokegun omenaldirik handiena: Eusketxe aurrera ateratzea.



NAFARROA ETOR, 9
T/F 943 88 94 82



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✱ Tximini eta ekonomiak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak

Aste Santua Seguran

Jesus giltzapetuaren zaintza

Gaur egun, Gipuzkoa mailan oso herri gutxitan ospatzen dira Aste Santuko prozesioak eta hauen artean, Segurakoak tradizioa bizirik mantentzen du bere herritarren fedeari eta lanari esker. Aste Santua Erramu Igandean hasten da eta Pazko egunez amaitu. Aurten, martxoaren 20tik 27ra.

350 herritar inguruko hartzen dute parte, lan ezberdinak eginez eta prozesioan parte hartuz.

Oraingo honetan, daukaten ohitura batez arituko gara. Ostegun Santu eguneko mezan, Soledadeko kapera dagoen sagrario batean, Jesus (Kaliza batean irudikatua) giltzapetan sartzen da. Herritarrek zaintza edo guardia egiten dute, Ostiralean giltzapetik atera bitartean.

Emakumezkoek eta gizonezkoek, aparta egiten



Hainbat emakumezko, Jesusi lagun egiten.

dute zaintza. Gaueko 10etatik goizeko 7ak arteko gizonezkoek egiten dute, gainerakoa, emakumezkoek.

Jose Luis Etxeberria eta Laureano Telleria segurak eman digute lan honen berri zehatza.

Gizonezkoak gauez

Erramu Igandeko mezaren ondoren, izena ematen dute herriko gizonezkoek, gauez, Jesusen zaintza egiteko. Binaka, familiako, taldeka... apuntatzen da jendea. Ostegun Santuan, Prozesioaren ondorenean, zozketa egiten da, txandak zehazteko. Orduerdiko 16 txanda egiten dituzte.

Laureano Telleriak gogoratu duenez, beraien gazte denboran, 'Benito handi' egoten omen zen gau guztian Sakristian, txandaren batek huts eginez gero.

Euskal preso eta iheslariak gure artean izanen dira. Elorripetik besarkada iraultzaile bat guztiei.

☎ 943 80 10 02 **SEGURA**

Jose de Lasa, 9
20210 **Lazkao** Gipuzkoa
943 160 190

Zurbano, 22
20214 **Segura** Gipuzkoa
943 801 177

amatriain
f r u t a k

ARANBURU
HARATEGIA

☎ 943 80 10 14 - 943 80 01 41
Nagusia, 34 **SEGURA**

Emakumezkoak egunez

Ostegun Santuko Prozesioa amaitu eta gaueko 10ak artean, eta Ostiralean, goizeko 7etatik prozesioa bitartean, emakumezkoen ardura izaten da Jesus zaintzea. Etxez etxe banatzen da txanden ordena eta ordutegia.

Orduerdiko txandak

Orduerdiko txandak egiten dituzte bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek. "Errespeto handiz egiten da zaintza, belaunikaturik", zehaztu dute segurarrek. Jose Luis Etxeberriak gogoratu duenez, "nire ama zenak, elizako liburua eramateko esaten zidan, orduerdia ez da oso motza egiten-eta".

Hurrengo txanda egingo dutenak iritsi arte, aurrekoak ez du alde egiten. Txanden zerrenda, badaezpada ere, elizan bertan egoten da. Momentuan, behintzat, jende faltarik ez da izaten Seguran, Jainkoari lagun egiteko.

Urrezko katedun giltza

Jesusen zaintza honetan, herriko alkateak ere bere protagonismoa izaten du. Ostegun Santuko prozesio-

aren amaieran, Jesus giltzapean dagoeneko giltza, herriko alkateak, golgotik zintzilik jartzen baitu, Ostiral Santu egunean, bertatik aterara arte.

Etxeberriak adierazi digunez, Zaragozako herri txikiren batean, alkatea giltza eta guzti sartzen omen dute giltzapean, alkateak alde egingo ote dieten beldurrez.

Lardizabaltar familiak oparitutako urrezko katea eta giltza dira. Telleriak azpimarratu duenez, "1700 urte inguru hartan, Lardizabaltarrek, urrezko katea zuen giltza eman zion herriari, baldintza batekin: apaizaren eta herriaren artean istilurik sortzen bazen, giltza, berriz itzuli egingo zela. Izan ere, haserreak izan omen ziren 1700 urte inguru haietan. Prozesioa atera ala ez, apaizak eta herriarrek erabakitzen omen dute eta urteren batean apaizak bakarrik erabaki omen zuen eta istiluak izan omen ziren herrian".

Bitxikeria handirik ez omen da gertatzen. Bakarren batek gaizki ulertu eta txanda okerrera azaldu, lo hartu...

Aste Santuko egitaraua

Martxoak 20: Erramu Igandea:

11:45ean: Erramu be-deinkatzea.

12:00etan: Meza Nagusia Parrokian.

Martxoak 24: Ostegun Santua:

17:00etan: Azken Afariko Meza Parrokian.

18:15ean: Prozesioa.

Martxoak 25: Ostiral Santua:

08:00etan: Gurutz bidea Santa Engrazitik Sorkundetar Komentura.

16:30ean: Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna, Gurutzetik jaistea Parrokian.


18:15ean: Prozesioa.

Martxoak 26: Larunbat Santua:

21:30ean: Meza Santua Sorkundetar komentuan.

Martxoak 27: Pazko eguna:

12:00etan: Meza Santua.



SANTA BARBARA

karrozategia

Juan Mari Oiarbide

Kale Nagusia ☎ 943 80 11 60 SEGURA

I M A Z

Jatetxea

◆ Eguneroko bazkariak
◆ Karta

☎ 943 80 10 25 - 943 80 13 77

Kale Nagusia, 27 SEGURA

Bertako haragia
Gaztak
Etxeko arkumeak...



janaridenda

KALITATEKO
EUSKAL
OKELA

Zurbano, 8 ☎ 943 80 03 26 SEGURA

OTATZA



Zatoz
probatzera!

SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik,
igande iluntzea eta
astelehena izan ezik

☎ 943 80 17 57
ZERAIN

Ausartak

Ordiziako Zaharren egoitzako antzerki taldea

Bost urte dira Ordiziako Jubilatuen eta Pentsiodunen elkartean Ausartak antzerki taldea sortu zela. Harrezkerotik, hango eta hemengo eszenatokietan ari dira beraien lanak aurkeztzen. Dena den, laster, taldearen agurra etorriko zaigu, aktore faltak eraginda. Beasaingo Jubilatuen egoitzako emanaldian harrapatu genituen.

Taula gainean jarri eta paper ezberdinak interpreta-tzera ausartu diren ordiziarrak dira Ausartak taldea osatzen dutenak. Andone Esparzaren zuzendaritzapean aritu dira lanean eta urtean, gutxi gorabehera, antzezlan bat prestatu dute.

Lehenengo urtean, haurrentzako antzezlan prestatu zuten, euskaraz eta erdaraz. Handik aurrera, helduei begirakoak. Astean ordubeteko entsaioa egiten dute.

Inguruko herrietan antzeztu izan dute. Errenteria, Beasain, Tolosa, Legazpi....



Benetako aktoreak

Martxoaren 1ean, Beasainen eskaini zuten ordiziarrek, Carlos Arnichesen 'Los milagros del jornal' antzezlan. Entsaioan harrapatu genituen. Saioa hasi aurreko tentsioarekin eta urduritasunarekin. 'Los milagros del jornal' komedia arin, dinamiko eta endredozkoa da; gezurra, itxurak eta maltzurkeria nahasten dituen komedia. 1924an gertatzen da historian; astea 8 pezetarekin bizirauten duen bikote baten historia da.

beti ere Jubilatuen elkarteetan. Hori bai, Ordiziako Herri Antzokiko eszenatokia ere zapaldua dute.

Agurra

Dena den, bost urteren ondoren, ekaina aldera, agur esango diote aktore lanari.

Taldean gero eta jende gutxiago dagoela eta, pena handiz, erabaki dute desagertzea. "Taldekako zaharrek 85 urte dituzte. Beste batzuk taldea uzten joan dira eta berriak ez dira etortzen", diote antzerki taldekako kideek.



izal 943 187 049
943 187 045
Ondramuño baserria
IMAZ eta CONTRERAS IDIAZABAL
PINTURA eta PAPERGINTZA

Olagi Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

Sagardotegia Jatetxea

943 88 77 26 ALTZAGA





F.M. 89.2
EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

Nagusia, 2 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu.asesoria@terra.es

Esperientziaren Eskolakoak eta Guske elkartekoak Zientzia museora bisitan

Esperientzia eskolak Gueske (esperientzia eskolako ikasle ohien sozio kultur elkarte) elkartearekin batera ekintza desberdinak antolatu dituzte martxoan, hala nola, Pertsona eta pertsonalitatea adin batetik aurrera, 50 urte konkretuki, mintegia, eta Zientzia museoa ezagutu Donostian.

Martxoaren 2an izan zen psikologia mintegia Ordiziako Jubilatutuek, Barbara Torres irakasleak azaldu zuen bezala, bera psikologa, psikoterapeuta eta Psikologia Fakultateko irakaslea delarik, azaldu zuen adin batetik aurrera etapa hori ezagutzeko datza bizitza hobeto bizitzen jakiteko, adinaren aldaketak ohizkoak ulertu, bizi esperientzia eta aldaketan aurrean nola moldatu eta azkeneko gaia auto kontzeptua eta auto estima izan zen. Hitzaldia elkarteak bazkideei zuzendutako zitzaien eta beraien esanetan garrantzizkoa den gaia da, ez bakarrik bakoitzak ezagutzeko baizik eta elkarlanean aritzen direnean ere bestearekiko jarrera sendotzeko ere.

Bestalde, Zientziaren

museora itenaldia egin zen ikasle eta ikasleohiek parte hartu zutelarik ekitaldian, bertan elektrizitate tailerra, bisita gidatua, eta planetarioa ezagutu zen, oso interesgarria izan zen guztia, bai izarrak identifikatzen jakitea, horoskopoa ulertu, zergatik dago geminis, tauro... esne bidea.e.a.

Eguna amaitzeko bazkari paregabea egin zen tenni-

seko jatetxean itsasorako bistarekin.

Esan, aurreko esperientziaren eskola bere azkeneko txanpan dagoela, Maiztaren bukaeran amaituko da, izan dituzte dagoeneko beste hainbat ikastaroren artean psikologia, Filosofia, Literatura, zientzia eta teknologia, zuzenbidea e.a. Gai guzti hauek beti ezagutza orokor baten ikuspuntu-

tik. Ez da ezagutza edo titulu berezirik behar esperientzia eskolan parte hartzeko, gozatzen ikasteko gogoia bakarrik.

Datorren urtean parte hartu nahi baduzu edo eta ikastaroari buruz informazio gehiago izan nahi baduzu deitu inongo zalantzarik gabe Goiekira 943 161537 telefono zenbakira.

Laida Plazaola



Esperientziaren Eskolakoak eta Gueskekoak Donostiako Zientzia museon.

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

**Goierriarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

Pottoka
K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

Ligatzeko esamoldeekin jolasean

Hizkuntzaren gaitasunak euskararen erabilerarekin zerikusi zuzena duela ikusita, gela barruan formak ez diren erregistroak landuko dituzte martxoan Ordiziako Jakintza eta Oianguren ikastetxeetako DBH-2 mailako ikasleek. Bi orduko saio praktikotetan, gazteen artean gutxi xamar erabiltzen diren ligatzeko euskarazko esamoldeak eskaini eta ikasiko dituzte, eta, gero, jarduera osagarri bezala, beraiek sortutako esamoldeak Ordiziako Gazteentzako I. Piropoen Lehiaketara aurkezteko aukera izango dute. Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean saioak eta Piropo Lehiaketa Udaleko Euskara zerbitzuak antolatu ditu, EBPNaren barruan.

Egoera informaletan euskarazko erregistro kolokiala lantzeko beharra somatu izan dute azken urteotan bai euskararen normalizazioan lanean ari den jendeak, bai gazteekin lan egiten dutenek ere. Ttakun kultur elkarteak eta Urtxintxa aisialdiko hezitzaile eskolak elkarlanean garatutako Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean programak horixe biltzen du: hau da, gazteek hizkuntzarekin jolastea, euskararekin ondo pasatzea, lagunarteko hizkera

kolokiala erabiltzera animatzea.

Izan ere, euskara gehien erabiltzen den herrietan ere, erregistro kolokiala erdaratik hartzeko joera dute gazteek, eta De que vas?, Qué guay! edo mola! bezalako esaldiak hitzetik hartzera erabiltzen dituzte. Askok ez diote bizitasunik topatzen euskarari, ez dute hizkuntzarekin jolastea lortzen, eta, beraz, ez dute euskara egoera ez-formaletan erabiltzen. Baina horretarako aukera ere ematen



Gazteei hizkuntzarekin jolastu eta ongi pasa daitekeela erakustea da helburua.

du euskarak. Hona, Lagunarteko Hizkerarekin Jolasean saioetan landuko dituzten erregistro batzuk: "Egunero jaten dugun ogia baino hobeto zaude", "Hori gerribuelta!", "Mutil hori etxera eramateko modukoa da", "Hori den mutil tratea!"...

Hizkuntzarekin jolastu, esamoldeak ikasi eta erabiltzeko aukera emango diete gazteei saioek. Lehendik gazteek duten hiztegia zein den ezagutu, eta esamolde berriak ezagutzera emango dizkiete Ttakuneko teknika-

riek; gazteek proposatutako esamoldeak eta esamolde berriak landuko dituzte, jolas, antzerki eta dinamiken bitartez. Saioetan gazteak partehartzaile zuzenak izango dira, metodologia guztiz dinamikoa eta partehartzaile izango baita.

Gelako ordutegiaren barnean txertatua, gehienbat tutoretza eta euskara orduak erabiliko dira saioak emateko. "Oso garbi dugu ikastetxeko irakasleek ezin zutela jarduera aurrera eramanean, programak erabat beselako giro ez akademikoa

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

txekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA



Pedro Jose Landagutierrez

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

Ordua eska ezazu konpromezunik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk. BEASAIN

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza



KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Piropo lehiaketa

Saioak amaitu ondoren, Ordiziako Gazteentzako I. Piropo Lehiaketa jarriko du martxan Euskararen Udal Aholku Batzordeak. Ikastetxeko saioak amaitu berrikan banatuko dituzte lehiaketaren oinarriak ikastetxean bertan, eta apirilaren 4a bitartean aurkeztu ahal izango dituzte gazteek lanak lehiaketara.

Hemezortzi urte bitarteko Ordiziako gazteek aurkeztu ahal izango dituzte lanak. Jasotako esamolde edo piropo guztien artean, hamar aukeratuko ditu hautapen batzorde batek, eta hamar horien berri emango da Ordiziako web gunean. Hiru piroporik onenen egileek, saria jasoko dute dirutan. Lehenengo saria eskuratzen duenak, gainera, 20 kamiseta jasoko ditu, lagunartean banatzeko. Irabazle suertatu den piropoekin egingo da kamixeten diseinua, piropoa herriko kaleetan ikusteko aukera emanez.

eskatzen duelako eta irakasle-ikasle arteko loturak hizkera askea baldintza zezakeelako", esan digute Tita-kun elkartekoek.

Esamoldeak eta ekintza osagarriak

Lantzen diren esamoldeak gazteentzako gertukoak izaten dira, benetan erabiltzeko modukoak. Adibidez, itxura oneko mutil bat dagoela adierazteko: "mutil trastea", "neska puska", "galant hori"; norbait maite-

minduta dagoela esateko: "ur gaineke aparretan ibili"; norbait oso gustokoa duela esateko: "seko txolindu", "baba dariola egon", "begiz joa eduki"...

Esamolde erakargarriak eskaintzen zaizkie, gazteei grazia egiten dieten esamoldeak, benetan adierazi nahi duten hori adierazteko baliotzen direnak. Adibidez: "Titi punti jarri", "partxisean jolastu", "potro-ximel"...

Hitanoak presentzia duen ingurua denez gurea,



hika erabiltzera bultzatzen saiatuko dira Ttakunekoak. Hitanoa da, azken batean, euskarak egoera informale-tarako duen berezko erregistroa. Adibidez: "Mikel? Mundiala dun. Barrez leher-tuko haiz harekin".

Saioetatik kanpo erregistro kolokiala euskaraz erabiltzen jarrai dezaten, hainbat jarduera osagarri eskainiko dizkiete Ttakunekoek gazteei: Hitzontzia liburutxoa, edota Kuxkuxeroa txata, esate baterako.

Patrikan gordetzeko liburutxoa da Hitzontzia. Saioak bukatu eta gero, partehartzaile guztiei banatuko

zaie. Bertan, saioetan landutako hainbat esamolde jasotzen dira, eta orri zuri batzuk uzten dira beraien esapide berriak gehitzeko.

Kuxkuxeroa txat gunean, saioetan landu diren esamoldeak erabiltzen jarraitzeko aukera emango zaie. Txat-gune moderatua da; bertan, hainbat herritako gaztetxoek elkarrizketak euskaraz izateko aukera dute, moderatzaile batek zirkatzen dituela. www.aisia.web.orriaren.berri.izango.dute.gainera. Hor, adar-jotze, ligatze, haserratzte eta beste hainbat gairen inguruko esamoldeak biltzen dira.

URRAKI
OVER Taldea **BIDAIAK**

Zure bidai ajentzia

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel./Faxa: 943 80 40 15 urraki@over.es www.over.es



Tel.:
943 887 048

Faxa:
943 882 801

Telleri z/g

ORMAIZTEGI

OSINALDE
KARROZERIA

ARRIETA

JATE TXEA


Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

943 88 00 02
OLABERRIA

Bertsolari gazteen aukera

*Osinalde sariaren aurretik Argi-Berri, Axari eta
Aztiri sariak jokatuko dira*

Apirilaren 16an Osinalde sarian parte hartuko duten sei bertsolarien bila, hiru lehia jokatuko dira, Ordizian, Idiazabalen eta Aztirin, 18 bertsolari gazteren artean. Tartean bi goierritar, ataundarrak biak, lehiatuko dira: Aitzol Barandiaran eta Iban Urdangarin. Barandiaranek dagoeneko lortua du finalerako txartela.



Bertso-afarien bueltan jokatu ohi bezala Gabiriako Osinalde sarirako txartela eskuratzeko lehia-
ketak. Saio bakoitzetik, bina bertsolari aukeratu ohi dira.

Ordiziako Argi Berri el-

kartearen jokatu zen lehenengo saioa, eta dagoeneko bi bertsolarik eskuan dute Osinalden jokatu den saiorako txartela: Aitzol Barandiaran ataundarrak eta Agin Rezola astigarratarak.

Hurrengo bi saioak dituzue segidan.

Apirilak 1: Axari saria. Idiazabal.

Iban Urdangarin (Ataun), Iñaki Viñaspre (Gasteiz), Aritz Aranburu (Zarautz), Andere Arriolabengoa (Aramaio), Ander Lizarralde (Oiz) eta Diego Riaño (Leizta). Ordezkoa: Aitor Zabaleta (Legazpi).

Apirilak 9: Aztiri saria. Aztirin

Beñat Lizaso (Azpeitia), J. Angel Aranburu (Hernani), Jon Barberena (Elizondo), Unai Muñoz (Lasarte), Jon Agirre (Zornotza) eta Arkaitz Oiarzabal (Oiz). Ordezkoa: Unai Gijarro (Zumaia).

Osinalde sariaren irabazleak

1971. urtean jokatu zen lehenengo Osinalde saria eta hurrezkerok, bertsolari gazteentzako plaza izan da Gabiriako Elkarteak. Jarraian duzue urtez urte, irabazle izan direnen zerrenda:

Patxi Iraola	Zaldibia	1971
Luis Otamendi	Aia	1973
Xabier Zeberio	Itsasondo	1974
J. Izagirre 'Attola'	Azkoitia	1975
Mikel Menizabal	Itsasondo	1976
J.I. Begiristain	Ataun	1977
Elgetzu	Mallabia	1978
Ziarda	Elgoibar	1979
Millan Telleria	Albiztur	1980
Xalbador Laka	Berriatua	1981
Jon Sarasua	Aretxabal.	1982
Xabier Euzkitze	Azpeitia	1983
Loidisaletxe	Errezil	1984
P. J. Aristorena	Hernani	1985
Joxe Mari Izeta	Usurbil	1986
Xabier Nalbarte	Lazkao	1987
J.Ramon Elorza	Ormaiztegui	1988
Joxe Munduate	Ataun	1989
B.Azpillaga	Errezil	1990
Igor Elortza	Durango	1991
Maialen Lujanbio	Hernani	1992
Aitor Sarriegi	Beasain	1993
Pablo Suberbiola	Lasarte	1994
Bixente Gorostidi	Amezketak	1995
Jexuxmari Irazu	Larraul	1997
N. Gabilondo	Zarautz	1998
A. Goikoetxea	Oiz	1999
Nerea Elustondo	Legazpi	2000
A. Agirreazaldegi	Bergara	2001
Iker Zubeldia	Zegama	2002
Iñaki Apalategi	Beasain	2003
Oihana Bartra	Bilbo	2004

*1972an ez zen jokatu

*1996an 25. urteurreneko ospakizuna egin zen.

biok
zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala



LADA
Ssang Yong

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Iurre Auzoa

OLABERRIA

☎ 943 88 09 47

Elkartasun oporrak

Garatze bidean ari diren herrietan lankidetzan arituko diren gazte-entzat laguntzak emango ditu aurren ere Beasaingo Udalako Gizarte Ongizate Sailak. Martxoaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira eskaera agiriak, Udaletxeko Harrera-bulegoan.

Beasaingo gazteen artean elkartasun-balorea indartzea eta aldi berean lurralde horien egoera gazteen bidez ezagutarazteko helburuz, 2005. urtean ere, garatze bidean ari diren herrietan egiten diren lankidetzak jardueretan parte hartzeko aukera izango dute beasaindar gazteek.

Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailak kale-ratu ditu dagoeneko, programa honetan parte hartu ahal izateko oinarriak.

2004. urteko abenduaren 31tik Beasainen erroldatuta egotea eta data horretan 18 eta 35 urte bitartean izatea eskatzen da. Hautagaiak aukeratzeko

orduan hurrengo arloak hartuko dira kontuan: jarduera burutu behar den lurraldeko hizkuntza ezagutzea, kasu bakoitzean egokienak diren eskola-agiriak edo lanbide-prestakuntza izatea, edota behar diren espezialitateetan ikasteen ari direla ziurtatzea; garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten eskarmen-tuak eta ezagutzak izatea; Gobernu Kanpoko Erakunderen bateko partaide izatea; Gazte-elkarteko bateko zein gizarte-helburuak dituzten beste erakunderen bateko kide izatea; euskara ezagutzea.

Aurkeztu beharreko agiriaren artean honakoak dira:



Programa bonetan parte hartu duten zenbait beasaindar.

eskaerari dagokion inprimaki ofiziala behar bezala beteta eta sinatuta; NAREN fotokopia; Curriculum Vitae-a; eta azaltzen diren merituen ziurtatzeko agiriak.

Gehienez 6 gazte

Beasaingo Udalak, jarduera burutu behar den tokian Gobernu Kanpoko Erakundeekin harremanetan jarri arteko joan-etorri gas-

tuak ordainduko ditu, herrialde hartara joateko behar den bida eta sartzeko edota irteko zergak barne eta baita hautatutako parte-hartzaileetako bakoitzaren gaixotasun eta istripuetarako aseguruia ere.

Gehienez 6 gazte bekatuko ditu Beasaingo Udalak, bi hilabeteko epean izendatutako herrialdean egoteko.

Ikasteknik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain
Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta tratamendua
• Test-ak, Frogak • Tailerrak

Arkupe
ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK
J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
943 80 10 66 ZEGAMA
SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Zuhaizpe, Oskarbi, Osña, Natxo dietetika. Ordizia: Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. Lazkao: Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. Legorreta: Dorronsoro. Zegama: Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. Segura: Erosle. Idiazabal: Ahizpak. Ormaiztegui: Iñaki Erosle. Zumarraga: Rueda dendak. Legazpi: Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo..

HORTZ KLINIKA

CAMPAGNOLE Doktorea
Zirujau dentista
473 zkl. kolegiatua
Odontologia, haur eta helduentzako ortodontzia, periodontzia eta hortz inplanteak jartzen ditugu.
Nafarroa etorbidea, 8 - 1.A BEASAIN
943 085 229

ETXEBIZITZAK

salgai

Beasainen, Nafarroa Etorbidetan, etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, jangela, egongela, 2 komun, garajea gelatxo batekin eta ganbara. 658709922.

Legorretan, pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, trastelekua eta balkoi ederra. 13:30etik 14:30era deitu. 647586507.

Beasaingo erdigunean pisua salgai. Guztiz berritua. Etxetresna eta altzariz hornitua. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. 679617159.

Idiazabalen etxebizitza salgai. 91 m². 3 logela, 2 bainugela, sukalde ederra, egongela, ganbara eta garajea. Igogailua, leiho berriak eta berogailua. Bizitzaren sartzeko moduan. 943187234.

Irunberrin (Nafarroa) etxebizitza salgai. Atikoa. 90 m². 3 logela, egongela tximiniarekin, sukaldea, bainugela eta terraza. 9438880386. Gauzez deitu.

Ataunen, etxebizitza berritua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta bajera. 108.193 euro. 650399303.

errentan eman

Beasaingo erdigunean pisua alokatzen da. Guztiz hornitua. 659644228.

Hendaian etxea alokatzen da, ekainetik irailera, astea, hama-bosteka... 699511901 - 943027912.

Mutiloan baserri dotorea errentan ematen da. Landetxe

bezala antolatua. Lanerako go-go duen bikote edo sukaldarientzat oso egokia. Terreno asko, aparteko pabiloia, zaldiak... Edozertarako aukera asko. Imanol. 679117116.

errentan hartu

Beasainen edo Ordizian, Goierriko langile bikote gazte batek pisua behar du alokeran. 605767917. Arratsalde deitu.

Beasain edo inguruan etxebizitza alokatu nahi dugu. 629378250.

Beasain, Ordizia edo Lazkaon etxebizitza errentan hartuko luke Goierriko bikote gazte batek. 657796079 - 653738569.

LOGELA

errentan eman

Logela alokatzen da. 678781986. Arratsalde deitu.

PABILOIAK

salgai-errentan

Beasaingo Ezkiaga etorbidean, 160 m² inguruko lokala saldu edo alokatzen da. Prezio onean. 619405190.

GARAJEAK

errentan eman

Ormaiztegin, 24 m²ko garaje itxia alokatzen da. 609411811.

Ordiziako erdigunean garaje itxia alokatzen da. 635700556.

Beasaingo Dulce Maria Loizoz etxaldean garajea alokatzen da. 943187768. 20:00etatik aurrera deitu.

Beasaingo Garmendia Otola kalean, garaje itxia alokatzen da. 943800225.

LURSAILA

erosi

Goierri, herrigunetik kanpo, 2 Ha inguruko lursaila, zelaia, erosiko nuke. 696999128.

Goierri, 5.000 m² arteko lursaila erosiko nuke. 616698236.

IBILGAILUAK

salgai

Peugeot 306 TD salgai. SS-AT. Egoera onean. 635745894.
Citroen Saxo 1.6 i salgai. 16 balbula, 120 zaldi. 5 urte. Egoera onean. Beti garajea egona. 630793199.

Opel Vectra 2.0i salgai. 117 zaldi. 5 atekoa. Aire egokitua eta engantxea. Oso egoera onean. Beti garajea egona. 676665382 - 943180173.

Scooterra salgai. 59 cc. 10.000 km. Ondo zaindua. Merkea. 666956883.

Suzuki RMX 50 motorra salgai. 2002. urtekoa. Oso egoera onean. 680799653.

Gas gas trial motorra salgai. 99. urtekoa. Egoera oso onean, gutxi erabilia. 645007205.

Renault 5-a salgai. Egoera onean. 600 euro. 620256197.

Quad Honda TRX 300 salgai. Nahiko berria. 5.000 euro. 629468221.

Opel Astra familiarra, diesel, salgai. 665722354.

Enfardadora salgai, Batlle markakoa. 696999128. Asier.

Opel Kadett GSI 2.0 salgai. Egoera onean. 600 euro. 620868608.

Opel Vectra 2.0 GT salgai. 115 zaldi. Egoera onean. Aire egokitua, engantxea eta abarrek. 617128654.

X

A

X

O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

© 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 **BEASAIN**



Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

2004-2005 IKASTURTEA

INFORMATIKA-GELA

Otsailean ikastaro berriak!

- ✓ Ikastaroak
 - Ingelera
 - Word, acces, excel
 - mekanografia
- ✓ Internet

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Moduluak, Zikloak
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Talde txikiak

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

BESTELAKOAK

errentan eman

Estatu barneko eta nazioar-
teko salgaien garraiorako bai-
mena alokatzen dut.
658703442.

erosi

Elektroestimulatzailerak ero-
siko nuke, bigarren eskukoa
(Compex edo antzekoa).
605744479.

**Hezetasuna kentzeko tres-
na** erosiko nuke. 629291255.

**Emakumezkoentzako bizi-
kleta** erosiko nuke.
635708314.

opari

Egurrezko mahaiak, ban-
kuak, aulkiak hartuko genituz-
ke txabola hornitzeko.
943723504.

salgai

Gurdi-denda salgai. Oso gu-
txi erabilia. 943881968.

Ziklo krosetako bizikleta sal-
gai, Flanders markakoa. 360
euro. 679445518.

Gitarra elektrikoa salgai,
Maison markakoa, Les Paul
modeloa. Zorro gogorra ere
bai. Oso egoera onean. Prezio
negoziagarria. 16:00etatik au-
rrera deitu. 628158142. Jon.

Egongelako armarioa salgai.
2,90 x 2,40. 943085206 -
655737277.

Sarrerako ate blindatua
salgai, osagarri guztiekin. Es-
treinatze dago. 943800078.

**Hozkailua, arropa garbi-
gailua eta ur berogailua** (ur
beroa eta berogailua) salgai.
Elektratresna nahiko berriak
eta oso egoera onean.
943084002 - 650017295.

Fotodepilatzeko makina
salgai. Spatouch markakoa.
687436394.

Erremolkea salgai,
1750x1200, 500 kilorentzako.
676882842.

Solarium horizontala salgai.
Bigarren eskukoa. Egoera one-
an. 943162256 (Klaude).

Labe profesionala salgai, Fa-
gor markakoa. Tentsio sarrera
380.3 fase. Potentzia: 9.000 w.
943888074. Eguerdian edo
iluntzean deitu.

Argazki makina salgai: Ca-
non EOS 300 + 28-90 mm Ca-
non AF objektibo + 80-200
mm Canon AF objektibo +
100-400 mm Cosina AF objek-
tibo (Canonentzat baliogarria)
+ Flasa. Poltsa eta filtro pare
bat opari. Objektiboak bakarrik
erosteko aukera, txikiak izan
ezik. Oso ondo zainduak. 450
euro. 647084564.

Idaz makina salgai, Olivetti
markakoa. Egoera onean. 30
euro. 943084219.

Haritzeko armairua salgai.
305 cm x 215 cm x 45 cm.
2.200 euro. 19:00etatik
21:00etara deitu. 649426761.

Ura berotzeko 2 berogailu
salgai, 6 eta 11 litrokoak. Oso
egoera onean. 670422051.

Administratibo laguntzaile
ikastoroko kontratua saldu
nahi nuke, Ados akademiakoa.
1.490 euro kostatu zena,
990ean salduko nuke.
679368886.

Play Station 2 berria, me-
mory card eta jokoa salgai.
Prezio ezin hobea: 110 euro.
610036043.

NEGOZIOAK

traspasatu

Harategia traspasatzen da
Bergaran, 27.000 eurotan. Edo
errentan, 50 euro. 943161990.

ANIMALIAK

salgai

Bihon Maltes arrazako 6 hi-
labeteko txakurkumea salgai.
Arra. 420 euro. 630614924.

AURKITUTAKO OBJEKTUAK

Urrezko eskumuturrekoa,
umeena, aurkitu dugu Olabe-
rrin. Otsailaren 6an.
943888163.

GPS bat aurkitu da Zerain
aldean. 627987310.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

Camp markako kranpoia,
urdira koloreko sokarekin, gal-
du nuen, martxoaren 12an,
Aizkorriko "kanal handian".
652760692 - 652760658.

LANA

eskaerak

Ormaiztegin emakumezkoa
behar da etxeko lanetarako.
Goizez, 5 orduz. 658721480.

Zerbitzari euskalduna eta es-
perientziaduna behar dugu,
arratsaldean lan egiteko.
607773041.

Seguran neska bat behar da,
goizez, etxeko lanak egin eta
haurrak eskolara eramateko.
943801088.

Zerbitzaria behar da barra-
rako. 605772623.

Emakumezkoa behar da
etxeko lanak egin eta haur bat
zaintzeko. 20:00etatik aurrera
deitu. 943028855.

Beasainen zerbitzaria behar
da. Egun osorako. Kontratuare-
kin. 685782717.

Araman, pertsona bat behar
da etxeko lanak egiteko, ordu-
ka. 650728717.

Sukaldari laguntzaile be-
har da tabernan lan egiteko.
605772623.

Zerbitzaria behar da astebu-
ruetarako. 629160500 -
627122097.

Idiazabalen emakumea be-
har da goizez 2 haur, noizean
behin, zaintzeko. 635729027.

Erretegian lana egiteko ema-
kumezkoa behar da. Egunero,
larunbata izan ezik.
615700408.

**Astebukaerretarako zerbi-
tzaria** behar da. Euskalduna.
Esperientzia badu hobe.
615745924.

eskaintzak

Haur hezkuntzako ikaslea
prest dago arratsaldetan 12
urte arteko haurrei klase par-
tikularrak emateko Beasain eta
Ordizia inguruan. 675005172.

27 urteko neska prest dago,
goizez, orduka, etxeak edo ata-
riak garbitzen lan egiteko.
687374559.

20 urteko mutila, prest da-
go edozein peoi lan egiteko.
Gidatzeko baimenarekin.
685711303.

19 urteko mutila, esperien-
tziaduna, prest dago tabernan
lan egiteko. 662102271.

**Emakumezko ekuatoria-
rra**, esperientzia eta errefe-
rentziak dituen, prest dago
etxeko lanak egin eta atarieta-
ko garbiketarako egiteko. Beasain,
Ordizia, Itsasondo, Legorreta
inguruan. 630250016.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkartokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak



Zunzunegi
Oinetakoak

Hirigoien, 8A LAZKAO
943 087 913



Zaldibiako ikasleak duela 80 urte inguru

Galizian bizi den Martin Etxezarreta zaldibiarrek helarazi digu argazki zahar hau. Duela 80 bat urte ateratakoa da eta bertan Zaldibiako eskola umeak ageri dira beren liburua eskuetan duela.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoa, argazkiak itzuli egiten dira.

iñAUSTI N-1 errepidea
lurre auzoa
OLABERRIA
KARROZERIA
© 943 88 43 01



RENAULT
LAZKAO GARAJEA
Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



ainaraetxeberria
HANKARA
podologia zentroa
Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN



AMEBI
Sagardoa
txotxetik
Sagardotegia
Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO



Lan bertikalak S.L.

Tfnoa.: 605 712 018
Ezkurdiategi Etxea ATAUN

Kanaloiak

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak


...



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



10

oskarbi oinetakoak



ordizia beasain zumarraga arrasate.